



Taldeen dantza

FITXA
16

Helburuak

- ELIKAGAI BEGETALEN KONTSUMOA SUSTATZEA.
- ELIKATZEN GAITUZTEN ORTUARIEN EZAUGARRI FISIKOAK EZAGUTZEA.
- OINARRIZKO HIZTEGIA.

Ikastaroak eta arloak/Eremuak/Materiak_____

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1go mailatik 3. Mailara.
Euskara eta gaztelania.
Hizkuntzen trataera integrala.

Gomendatutako adina_____

4-9 urteko ikasleak.

Jardueraren deskribapena/Metodologia_____

Ikasleak multzo edo taldetan antolatuko dira. Talde bakoitzari ortuari bat esleituko zaio, gure gastronomian nahiko ohikoa den ortuari bat, adinaren arabera.

Jolasgunean, kartelak dituzten txokoak jarriko dira, barazki bakoitzaren marrazki edo izenarekin. Kutxa handi batean edo patioan banatuta, margotutako barazkien eta/edo horien izenen kartulinar jarriko dira, hizkuntza desberdinetan, ikasleen adinaren arabera.

Taldeek euren taldeko barazkien kartulinar bilatu, eta dagokion txokora eraman behar dituzte. Jolasa hainbat aldiz errepika daiteke, talde bakoitzari esleitutako barazkia aldatuz.

Gordinik dastatzeko barazkiak izatea proposatzen da: tomatea, azenario-makilatxoak, errefau-xerrak, pepinoa, eta abar, ikasleek euren dietan hain ohikoak ez diren elikagai begetalak probatzeko aukera izan dezaten.

Era berean, jardueraren aldian otorduetan mota bereko elikagai begetalak sartzeko aukera eman diezaiekegu gurasoei.

Aniztasunari erantzuteko, hezkuntza-laguntzako berriazko premiak (HLBP) dituzten ikasleentzat beharrezko giza baliabideak edukiko dira (PT, hezitzailea, logopeda), eta irakasleek, tutoreek edo ikasle laguntzaileek aktiboki lagunduko diete, premia zehatzen arabera.

Aldez aurretik, ikasleen elikadura-alergiak edo kontaktuagatik dituztenak kontsultatuko dira, komenigarriak ez diren edo debekatuta dauden ahorakinak edo kontaktuak saihesteko.



Aukeratu
osasuntsu jatea
Zu irabazle!



Elige
comer sano
¡Tú ganas!

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Egutegi eredu/Iraupena

Saio bat (45 minutukoa) materiala prestatzeko.
Saio bat (45 minutukoa) jolasa egiteko.

Jarduera-eremua

Eskolako jangela Ikasgela Etxea Patioa/gimnasioa

Beharrezko baliabideak

Giza baliabideak:

Irakaslea.

Materialak:

Barazkien irudiak edo argazkiak, eta barazkien izena barazkiaren kolorez idatzita dituzten kartulinak.
Kaxa handiak.
Barazki bakoitzaren txokoak identifikatzeko kartelak.

Ebaluazio-metodoa/Adierazleak

Ebaluazio jarraiaren bidez, ondorengo hau baloratuko da:

- Ikasleek landutako barazkiak ezagutzen dituzten.
- Ikasleek barazkia horren izenarekin (hizkuntza batean eta/edo hainbat hizkuntzatan) identifikatzen duten, egindako lanketaren arabera.
- Ikasleek jardueran zehar eskainitako elikagai begetal bat edo gehiago probatu duten.
- Ikasleek etxeko otorduetan elikagai begetalak jan izana adierazten duten.

Informazio gehiagorako (aurretiatzko esperientziak, material lagungarria, bibliografia...)

Aurretiatzko esperientziak:

- https://ecohuertos Escolares.eu/sites/default/files/nuestro_huerto_libro_ed_infantil_0.pdf

Material lagungarria:

- <https://pixabay.com/es/photos/hortalizas/>
- <https://www.infoagro.com/galeria/fotos.asp?s=9>

Bibliografia:

- Evans CE, Christian MS, Cleghorn CL, Greenwood DC, Cade JE. Systematic review and meta-analysis of school-based interventions to improve daily fruit and vegetable intake in children aged 5 to 12 y. Am J Clin Nutr. 2012; 96 (4): 889-901.
- Silveira JA, Taddei JA, Guerra PH, Nobre MR. Effectiveness of school-based nutrition education interventions to prevent and reduce excessive weight gain in children and adolescents: a systematic review. J Pediatr (Rio J). 2011 Sep-Oct; 87(5):382-92.
- Ratcliffe MM, Merrigan KA, Rogers BL, Goldberg JP. The effects of school garden experiences on middle school-aged students' knowledge, attitudes, and behaviour associated with vegetable consumption. Health Promot Pract. 2011 Jan; 12(1):36-43.